

2030  Agenda  
**Foroa**  
Euskadi

Trantsizio Sozialaren  
eta **2030 Agendaren** Eragile  
Anitzeko Foroa

Foro Multiagente de Transición  
Social y **Agenda 2030**  
en Euskadi

# 2022ko Memoria eta 2023ko Kudeaketa Plana

## Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Eragile Anitzeko Foroa

2023ko martxoaren 15a

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia  
Lehendakaritza

2030 Agenda  
Euskadiren konpromisoa



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

# 2030 Agenda **Foroa** Euskadi

Trantsizio Sozialaren  
eta **2030 Agenda**ren Eragile  
Anitzeko Foroa

Foro Multiagente de Transición  
Social y **Agenda 2030**  
en Euskadi

# Aurkibidea

## Aurkezpena

### Lehen zatia. 2022ko memoria

1. 2030 Agenda Euskadi Foroaren 2022ko mugarri nagusiak eta ibilbidea.
2. Osoko Bilkuraren balantzea.
3. Batzorde Iraunkorraren balantzea.
4. Gobernantzako Lantaldearen balantzea.
5. Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agendako Lantaldearen balantzea.
6. Eraldaketa Sozialaren Lantaldearen balantzea.
7. Eraldaketa Energetiko-klimatikoaren Lantaldearen balantzea.
8. Eraldaketa Ekonomiko-digitalaren Lantaldearen balantzea.
9. Guneak Ekimenaren balantzea.
10. Ondorioak.

### Bigarren zatia. 2023ko Kudeaketa Plana

2023ko ikuspegirako sarrera.

2023rako indargune nagusiak.

1. Osoko Bilkuraren 2023ko lan-programa.
2. Batzorde Iraunkorraren 2023ko lan-programa.
3. Gobernantzako Lantaldearen 2023rako ibilbide-orria.
4. Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agendako Lantaldearen 2023rako ibilbide-orria.
5. Eraldaketa Sozialaren Lantaldearen 2023rako ibilbide-orria.
6. Eraldaketa Energetiko-klimatikoaren Lantaldearen 2023rako ibilbide-orria.
7. Eraldaketa Ekonomiko-digitalaren Lantaldearen 2023rako ibilbide-orria.
8. Guneak Ekimenaren 2023ko ibilbide-orria.



## Aurkezpena

2021eko ekainaren 29an, Eusko Jaurlaritzak 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa onartu zuen. Bigarren jarduera-ardatzean, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Eragile anitzeko Foroa sortzea aurreikusten zen (aurrerantzean, 2030 Agenda Euskadi Foroa edo Foroa), Euskadin 2030 Agendaren gobernantza partekatua eta Garapen Jasangarrirako Helburuak sustatuko dituen organo gisa.

Aurreikuspen hori betetz, 2021eko uztailaren 6an, Eusko Jaurlaritzak 166/2021 Dekretua onartu zuen, foro hori arauz eratu eta arautzen duena. Edukiaren arabera, hauek dira Euskadi 2030 Agenda Foroaren eginkizunak:

- Munduko joerarik garrantzitsuenak eta horiek munduan duten eragina aztertzea, 2030 Agenda Euskadin kokatzen laguntzeko.
- Euskadin Garapen Jasangarrirako Helburuak ezartzeko orientabide estrategikoak ezartzzen eta lantzen laguntzea.
- 2030 Euskal Agenda koordinatu eta integrala aztertu, planifikatu, bultzatu eta sustatzea, bertan jasotako helburuak lortzeko eta 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa garatzen laguntzeko.
- Euskal Autonomia Erkidegoak nazioarteko foroetan eta erakundeetan parte hartzea bermatuko duten ekintzak aztertzea eta proposatzea.
- Jaurlaritzari igortzea, izaera loteslerik gabe, GJHen arloko jarduerak hobetzeko egokitzat jotzen dituen ekimenak eta proposamenak.
- 2030 Agenda Euskadin sustatzen, bultzatzen eta garatzen laguntzen duen beste edozein eginkizun, erakundeen arteko koordinazioaren eta maila anitzeko lankidetzaren bidez.

Honako organo hauek ezartzen dute 2030 Agenda Euskadi Foroaren barne-arkitektura: Osoko Bilkurak, Batzorde Iraunkorrak, bost lantaldek (Gobernantza, Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agenda, Eraldaketa Soziala, Eraldaketa Energetiko-klimatikoa eta Eraldaketa Ekonomiko-digitala), eta Guneak Ekimena, foroaren irekigunea partaidetza eta lankidetzaren publikora, pribatura eta gizarte zibilera.

Osoko Bilkurako kide dira Lehendakaria, presidente gisa; Eusko Jaurlaritzako sailburu guztiak, hiru foru-aldundiak, EUDEL, hiriburu-udalak, hiru euskal unibertsitateetako errektoreak, Euskadiko hirugarren sektoreko ordezkariak Sareen Sarearen bidez, eta lankidetzaren publiko-pribatuko ordezkariak Basque Center for Climate Change (BC3) delakoaren bidez; Basque Research and Technology Alliance (BRTA) Partzuergo Zientifiko-teknologikoa; edo ACLIMA, Basque Environment Cluster.

2021eko azaroaren 9an, 2030 Agenda Euskadi Foroa eratu zen, Iñigo Urkullu Renteria Lehendakaria buru zela, Arabako Parke Teknologikoaren eraikin nagusian. Lehen bilera hartan, Foroaren funtzionamendu-proposamena onartu zen.

Metodologia laburbiltzen duten hiru hitz: plangintza, dinamizazioa eta ebaluazioa. Plangintza urteko Kudeaketa Planak eginez eta onartuz bideratzen da. Koordinazio-tresnaren oinarria da Foroaren bost lantaldeek eta Guneak Ekimenak egin beharko duten urteko Kudeaketa Planaren garapena bateratzea Batzorde Iraunkorren bileretan. Azkenik, ebaluazio-tresna urteko memoriak egitean oinarritzen da.

Abiapuntu horrekin, 2021. urtearen amaieran, Foroaren 2022rako Kudeaketa Plana prestatu zen. Haren eduki-egiturak *Legealdiko lehentasunen* panel bat eta *Urteko lan-helburuen*

## 2030 Agenda Euskadi Foroa

agenda bat lotzen dizkio organo edo Lantalde bakoitzari. Batzorde Iraunkorrek egin, koordinatu eta dinamizatuko du, Lantaldeekin koordinatuta.

2022an, Foroaren Osoko Bilkura bi aldiz bildu da: martxoaren 29an, Donostiako Miramon Parke Teknologikoan; eta urriaren 25ean, Bilboko Euskalduna Jauregian. Bi topaketa horietako lehenengoan 2022ko Kudeaketa Plana onartu zen, Foroa osatzen duten organoen ibilbide-orria markatu duena.

2022aren amaieran, Batzorde Iraunkorrek 2022ko Memoriaren eta 2023ko Kudeaketa Planaren lehen zirriborroa kontrastatu behar izan du Foroko organoekin eta Lantaldeekin. Hori guztia, abenduaren 14ko bilerarako memoriaren eta kudeaketa-planaren lehen proposamen bat prest edukitzeko. Beraz, 2023ko martxoaren 15eko Osoko Bilkuran aurkeztu ahal izango dira, behin betiko onar daitezten. Dokumentu honek prozesu horren emaitzari erantzuten dio.

2022ko Memoria eta 2023ko Kudeaketa Plana zortzi ataletan egituratzen dira, Foroa osatzen duten organo bakoitzari lotuta. Horrela, Foroaren antolaketa-unitate bakoitzak bere urteko ibilbide-orria du, eta bertan zehazten dira *Legegintzaldiko lehentasunak eta 2023rako lan-helburuak*.

2030 Agenda Euskadi Foroaren funtzionamendu-eredu horrek berarentzat aldarrikatzen du Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak bultzatzeko *zehaztasunaren metodologia*. Erronken eta helburuen definizioa eskatzen du, Euskadik eta haren erakundeek 2030 Agendarekin duten konpromisoaren esanahia modu zehatzean eta egiaztagarrian islatzeko.

Konpromiso horiek urtero ebaluatu behar dira balantze horretan hurrengo ekitaldirako helburuen proiektzioa finkatzeko. Abstrakzioaren eta zehaztugabetasunaren arriskuen aurrean, filosofia eta metodologia horrek gidatzen du dokumentu honetan aurkezten den 2030 Agenda Euskadi Foroaren 2022ko Memoria eta 2023ko Kudeaketa Plana.

Lehen zatia

2022ko **memoria**

## **1. 2030 Agenda Euskadi Foroaren 2022ko mugarri nagusiak eta ibilbidea**

2030 Agenda Euskadi Foroaren ondorioetarako, 2022. urtea hasierako jardutetzat hartu behar da. Ekitaldi honetan, haren egitura eta funtzionamendu-metodologia abiarazi dira. Jarraian egiaztatu ahal izango denez, 2022ko Kudeaketa Planean planteatutako helburuen betetze-mailaren balantzea eta emaitzak nahiko altuak dira. Balorazioa positiboa da, eta, logikoa denez, hobetzeko esparruak eskaintzen ditu etorkizunari begira.

Foroa osatzen duten erakunde guztiek hasiera eman diote zentzuz funtzionatu duen eta etorkizun handikoa den esperientzia bati, bai gobernantzaren arloan, bai proiektu zehatzak bultzatzeari dagokionez. Hasierako funtzionamenduaren arintasuna da ibilbideko lehen urte honetako lehen mugarria.

Euskadin 2030 Agendaren ikuspegitik, 2022ko bigarren mugarria Nazio Batuekin lortutako akordioa da, Local 2030 Koalizioaren Idazkaritzaren egoitza EAEn kokatzeko. Horrek EAeko erakundeek azken urteetan egindako ibilbidea aitortzen du, eta GJHak lokalizatzeko etorkizuneko konpromisoa dakar.

Azken batean, Foroak lehen urte honetan bete du bere misio nagusia: gobernantza partekatua eta eragile anitzeko koordinazioa hobetzen laguntzea, 2030 Agenda eta Euskadiko Garapen Jasangarrirako Helburuak garatzeari eta betetzeari dagokionez.



## 2. Osoko Bilkuraren balantzea

### 2.1. Aurreikusitako jarduketak

2022ko lan-helburua	Jarraipena	Betetzea
·Martxoan Osoko Bilkura egitea, gai-zerrendako puntu bat Hiri Agendari emanez. 11. GJH: Hiri eta komunitate jasangarriak.	·Osoko Bilkura martxoaren 29an egin zen, Miramongo Parke Teknologikoan. 11. GJHa landu zen.	·Helburua beteta.
·2022ko Kudeaketa Plana onartzea.	·Martxoko osoko bilkurak 2022ko Kudeaketa Plana onartu zuen.	·Helburua beteta.
·Eusko Jaurlaritzak Nazio Batuetan aurkeztu duen 2021eko Borondatezko Jarraipen Txostena ezagutzea eta baloratzea.	·Eusko Jaurlaritzak 2021eko Jarraipen Txostena aurkeztu zuen Osoko Bilkuran.	·Helburua beteta.
·Urriari Osoko Bilkura bat egitea, gai-zerrendako puntu bat 3. helburuari buruz (Osasuna eta ongizatea) eta, zehazki, Osasun globala eta txertaketa solidarioa ekimenari buruz.	·Bigarren Osoko Bilkura urriaren 25ean egin zen, Bilboko Euskalduna Jauregian. 3. GJHa monografikoki landu zen.	·Helburua beteta.
·Urriko Osoko Bilkuran 2023ko Kudeaketa Planaren oinarriak zehaztea.	·2023 Kudeaketa Planari buruzko eztabaidari ekin zitzaion.	·Helburua beteta.

### 2.2. Jarduketa gehigarriak

·Orain arte egindako Osoko Bilkura bakoitzean Foroaren Presidentziaren Adierazpen bat aurkeztu da.

·Urriko Osoko Bilkuran:

-Nazio Batuekin akordioari buruzko informazioa partekatu zen, Local 2030 Koalizioaren Idazkaritzaren egoitza Euskadin kokatzeko, eta egoitzaren instalazioak aurkezteko urriaren 31rako antolatutako ekitaldiaren berri eman zen.

-Bide Segurtasunaren aldeko Euskal Ituna aurkeztu zen.

-GJHen ikuspegia erakunde publikoen aurrekontuen lanketan eta kudeaketan txertatzeko proposamen bat aurkeztu eta eztabaidatu zen.

### 3. Batzorde Iraunkorraren balantzea

#### 3.1. Aurreikusitako jarduketak

2022ko lan-helburua	Jarraipena	Betetzea
·Urtean zehar bost bilera egitea.	·Iraunkorrak bost bilera egin zituen otsailean, apirilean, uztailean, urrian eta abenduan.	·Helburua beteta.
·2022 Kudeaketa Planaren proposamena prestatzea eta hura betetzen dela koordinatzea eta dinamizatzea.	·Kudeaketa Plana martxoko Osoko Bilkuran aurkeztu zen, eta koordinatu eta dinamizatu egin da.	·Helburua beteta.
·Martxoa baino lehen Lantaldeak antolatzen eta abian jar zitezen bultzatzea.	·Urtarrilean eratu ondoren jarri ziren abian bost Lantaldeak.	·Helburua beteta.
·Martxoko eta urriko Osoko Bilkuretako gai-zerrenda eta edukiak prestatzea.	·Bi Osoko Bilkuren bilerak Batzorde Iraunkorrean prestatu ziren.	·Helburua beteta.
·Batzorde Iraunkorraren bilera bakoitzean komunikazio- eta informazio-bideak ezartzea bost Lantaldeen artean eta haiekin.	·Bilera guztietan, Lantalde bakoitzeko arduradunek beren jardueraren berri eman zuten.	·Helburua beteta.
·2022ko Jarduera-memoriaren oinarria prestatzea.	·Balantzearen lehen zirriborroa azaroan prestatu zen.	·Helburua beteta.
·2023 Kudeaketa Planaren lehen proposamena prestatzea.	·Balantzearen lehen zirriborroa azaroan prestatu zen.	·Helburua beteta.

#### 3.2. Jarduketa gehigarriak

·Batzorde Iraunkorrak martxoko Osoko Bilkuraren garapena ebaluatu zuen, eta funtzionamendua eta metodologia hobetzeko proposamenak egin zituen.

·Era berean, 2030 Agenda Euskadi Foroaren irudi korporatiboaren eta logotipoaren proposamena aurkeztu zuen.

·Erakunde publikoen aurrekontuak egitean eta kudeatzean GJH ikuspegia txertatzeko proposamena baloratu eta onartu zuen.

## 4. Gobernantzako Lantaldearen balantzea

### 4.1. Aurreikusitako jarduketak

2022ko lan-helburua	Jarraipena	Betetzea
·Euskal erakundeen baterako ekimena bultzatzea, ekitaldi, hitzaldi edo komunikazio-kanpaina baten bidez, Euskadik 2030 Agendarekin duen konpromisoaren isla.	·Eusko Jaurlaritzak garatutako komunikazio-ekimenak aurkeztu ditu Foroan, baina ez da ekimen bateraturik bultzatu.	·Bete gabeko eta 2023ra atzeratutako helburua.
·Erakundearteko koordinaziorako oinarriak ezartzea fiskalitatearen eta 2030 Agenda eta GJHak bultzatzearen arloan.	·Fiskalitatearen eta GJHen arloko erakundearteko koordinaziorako oinarriak ezartzea, hala badagokio, zerga-ereduaren ebaluazioarekin batera jorratuko da.	·Atzeratutako helburua.
·2030 Agendari buruzko prestakuntza-prozesuak batera sustatzea administrazio publiko guztietako langileentzat.	·Programa hori ez da 2022an abiarazi, baina IVApekin batera egin da, 2023an zehar eskaintzeko.	·2023rako prestatutako helburua.
·Erakundearteko koordinaziorako oinarriak ezartzea, GJHen garapenaren eta betetze-mailaren jarraipen- eta ebaluazio-adierazleen sistemari dagokionez. Adierazleak erakundeen artean lerrokatzeari buruzko gaikako talde bat sortzea.	·Adierazleei buruzko erakundearteko gaikako talde bat sortu da. Hiru erakunde-mailak partekatutako GJHen jarraipena egiteko 50 adierazleko panel bat sortu da. Abenduan argitaratu zen Eustaten webgunean. Bigarren fasean, 2023an zehar, beste 50 adierazle bateratuko dira.	·Helburua beteta.
·2030 Agendaren inguruan nazioartean euskal presentzia izateko programak eta egutegiak bateratu eta koordinatzea.	·Unean-unean partekatu da nazioarteko jarduketei buruzko informazioa, eta, bereziki, Nazio Batuen Local 2030 Idazkaritzaren egoitza hartzeko euskal hautagaitzari buruzkoa.	·Helburua beteta.
·Maila anitzeko Agenda eguneratzeko lanak hastea, 2023an aurkezteko.	·Ekimen honi ez zaio ekin. Nolanahi ere, 2023an gauzatuko da.	·Bete gabeko eta 2023ra atzeratutako helburua.

### 4.2. Jarduketa gehigarriak

·Gobernantzako Lantaldeak GJHen ikuspegia erakunde publikoen aurrekontuak egitean eta kudeatzean txertatzeko proposamena planteatu eta prestatu zuen.

## 5. Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agendako Lantaldearen balantzea

### 5.1. Aurreikusitako jarduketak

2022ko lan-helburua	Jarraipena	Betetzea
<p>·Hiri-adierazleen jarraipenerako lehen esparrua zehaztea, ixtea eta lantzea, 2030 Agendako adierazleekin eta Espainiako Hiri Agendatik nahiz Nazio Batuen Urban Monitoring Framework-etik eratorritakoekin bat etorriz.</p>	<p>·Bultzatu 2050eko 82 adierazleen koadroa eguneratu da, honako parametro hauen arabera:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Bultzatu 2050eko 8 Lehentasun Estrategikoei eragiten dieten Eusko Jaurlaritzako Sailen Estrategia eta Plan Zuzentzaileen azterketa.</li> <li>-Estrategia eta plan horien epe ertain eta luzerako helburuak dituzten adierazleak hautatzea. Horiei esker, lehen ebaluazio bat egin ahal izan da Bultzatu 2050en 8 Lehentasunen aurrerapenei buruz.</li> <li>-82 adierazleren hasierako zerrenda egokitzea EUSTATEN 2030 Agendaren adierazleetara eta Gobernantzako Lantaldeak prestatzen dituenetara.</li> </ul>	<p>·Lehen fasean abian jarritako eta betetako helburua. Bigarren fasean, 2023an, adierazleak bat etorriko dira Gobernantzako Lantaldearen adierazleekin eta Nazio Batuen Urban Monitoring Framework delakoarekin.</p>
<p>·Bultzatu 2050 lehen txostena egitea, Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agendaren ezarpenaren inguruko aurrerapenei eta erronkei buruzko erreferentziako, eztabaidarako eta sensibilizaziorako tresna gisa.</p>	<p>·Txostena Euskal Hiria Kongresuan aurkeztu zen, 2022ko azaroaren 28an.</p>	<p>·Helburua beteta.</p>
<p>·Euskadiko Hiri Proiektuen Plataforma/Mapa eztabaidatzea, diseinatzea eta egitea, jardunbide egokiak biltzeko eta proiektu horiek Hiri Agendaren helburuak betetzeko egiten duten ekarpenari balioa emateko gune gisa.</p>	<p>·Proiektu eragileak hautatzea eremu hauetan: (1) EAEko udalerriek 2030 Agendari egindako ekarpenen 15 eremuak, eta (2) Lehentasunen Euskal Programaren 7 proiektu adierazgarriak, zehazki, Opengela, hiri-berroneratzearekin duten loturagatik.</p> <p>·Proiektu motor horien eta Bultzatu 2050en 8 Lehentasun Estrategikoen arteko korrespondentzia mapatzea.</p> <p>·"Jardunbide Egokien Dekalogo" egitea trakzio-proiektuak bultzatzeko, Lantalde honetako agenteen laguntzarekin.</p>	<p>·Helburua abian jarri da.</p>

### 5.2. Jarduketa gehigarriak

·Lantaldea osatzen duten erakundeek bultzatzen dituzten helburuak, proiektuak eta prozesuak bateratu dira, eta, zehazki, Ermua, Sestao eta Gasteizko udalen ekimenak. Bateratze-lan hori oso positiboki baloratu da, eta hurrengo bileretan jorratzen jarraitzea erabaki da.

## 6. Eraldaketa Sozialaren Lantaldearen balantzea

### 6.1. Aurreikusitako jarduketak

2022ko lan-helburua	Jarraipena	Betetzea
·Ekitatea Proiektu adierazgarriaren zazpi programetako bakoitzaren ebaluazioa eta ondorioak partekatzea pandemiaren osteko testuinguruan.	·2022ko martxoko, ekaineko, iraileko eta abenduko bileretan, partekatu eta kontrastatu egin ziren Gizarte Larrialdietarako Laguntzen Programen (GLL) garapenari buruzko aurrerapenak, bai eta Lehen Urratsa, Azken Sarea Indartzen, Erdu, Aukerak suspertzen, Euskarri Estrategia eta Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legearen aurreproiektua ere.	·Helburua beteta.
·Berdintasunaren aldeko Itun sozial eta herritarra bultzatzea.	·2022ko irailaren 28ko bileran, Itun honen ekimena aurkeztu eta babestu zen.	·Helburua beteta.
·2022an erakundearteko estrategia adostu bat izatea, erronka demografikoari erantzungo diona, 2030aren ikuspegiarekin.	·Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia egiteko prozesuari buruzko informazioa hainbat bileratan eman zen, eta, zehatzago, ekainaren 8ko bileran, Gobernu Kontseiluak onartu aurretik, 2022ko ekainaren 21ean.	·Helburua beteta.
·Migraziorako Euskal Itun Sozialaren ebaluazioa egitea eta datozen urteetan izango dituen lehentasunak partekatzea.	·Ekimen horri ez zaio heldu, besteak beste, urgentzia Ukrainatik lekualdatutako pertsonen etorrerari erantzutera bideratu zelako.	·Atzeratutako helburua.
·Txertaketa global eta solidarioaren arloan ahaleginak koordinatzea, baita arlo horretako ekimenak babestea eta sustatzea ere.	·Guinea Bissau-reekiko Lankidetzaren Sanitarioko eta txertaketa global eta solidarioko COVAX mekanismoari emateko Programa 2022an jarri da abian. Lantaldeak informazio zehatza jaso zuen 2022ko ekainaren 8ko bileran. 2022ko urriaren 25eko Osoko Bilkurak ekimen horri buruzko informazioa jaso zuen.	·Helburua beteta.
·“Gazteria, Bizikidetzaren eta Etorkizunari” buruzko hausnarketa- eta eztabaida-prozesua garatzea.	·Taldea eragilea eratu da eta taldearen kohesiorako eta barne-hausnarketarako prozesu bat garatu da. Gazteen hogeita hamar ordezkari eta aktore esanguratsu elkarriketatuta eta inkesta bat egin da.	·Helburua abian. 2023rako, Lantalde honetan aurkeztu eta kontrastatu behar da.
·ADOS Batzordearekiko koordinazioari eustea, Lantalde honen Talde Tematikotzat hartuta.	·ADOS Batzordearen ekimenak irailaren 28ko bileran partekatu eta kontrastatu ziren.	·Helburua beteta.
·Emantzipazio-estrategia definitzea.	·Gazteen emantzipazioa laguntzeko 2030 Euskal Estrategiaren edukia taldean kontrastatuko da 2023ko lehen bileran.	·Helburua abian.

## 2030 Agenda Euskadi Foroa

·Hezkuntzaren Auzolana proiektu adierazgarriaren jarraipena.	·Proiektu honen jarraipena 2023ra atzeratu da.	·Bete gabeko eta atzeratutako helburua.
·2030 Agendari buruzko komunikazio- eta dibulgazio-kanpainak bultzatzea gazteen artean.	·Irailaren 28ko bileran, erakusketa ibiltari baten bidez EGK-k Eusko Jaurlaritzaren eta hiru hiriburuetako udalen laguntzarekin garatu duen kanpaina aurkeztu zen.	·Helburua beteta.
·2030 Agendaren arloko dibulgaziozko prestakuntza-programa zabal bat sustatzea.	·Lantaldeak hainbat bileratan eza-gutu eta babestu ditu Eusko Jaurlaritzak sustatutako dibulgaziozko bi prestakuntza-programak.	·Helburua beteta.
·2030 Agendaren arloan pedagogia-baliabideak sortzeko talde tematiko bat sortzea.	·Lantaldeak ekaineko eta iraileko bileretan jaso du material hori egiteko egindako aurrerapenei buruzko informazioa. 2023an aurkeztea aurreikusten da.	·Helburua abian.

### 6.2. Jarduketa gehigarriak

·Lantaldeak unean uneko informazioa jaso du bere bileretan, EAEko erakundeek Ukrainako errefuxiatuen etorrerari emandako erantzunari buruz, bai eta prestatutako Kontingentzia-planei buruz ere. Gaia baloratu eta kontrastatu da..

## 7. Eraldaketa Energetiko-klimatikoaren Lantaldearen balantzea

### 7.1. Aurreikusitako jarduketak

2022ko lan-helburua	Jarraipena	Betetzea
·Ekiola ekimenean 2022rako aurreikusitako jarduketei ekitea, haren hedapen-planaren arabera.	·Lehentasan-ildo horretan egingako aurrerapenak partekatu eta kontrastatu dira.	·Helburua abian.
·Zabortegetan, bide-azpiegituretan eta abarretan berriztagarriak txertatzea.	·Ekimen hori ez da landu 2022an.	·Atzeratutako helburua.
·Txingudiko Badiaren inguruko naturaguneen konektibitatea leheneratzeko eta hobetzeko Plan Zuzentzailea bultzatzea eta Urdai-baiko suspertze-, transformazio- eta erresilientzia-Plana egitea.	·Lehentasan-ildo horretan egingako aurrerapenak partekatu eta kontrastatu dira.	·Helburua abian.
·Gizartearen aldetik, bereziki gazteen kolektiboari begira, klima-erloto proiektu pilotuen proposamen bat lantzea eta ezartzea.	·Klima-aldaketari buruzko ikusentzunezko sorkuntza-lehiaketa egin da 18 eta 30 urte bitarteko gazteentzat, KLIMAMETRAJE.	·Helburua beteta.
·Klimari buruzko lankidetzaprojektuak garatzea hainbat udalerriren artean, klimari eta energiari buruzko tokiko plangintzetan integratutako jardueretan.	·ASTEKLIMA egin da, Klimaren eta Energiaren Astea. Ekimen hori Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak sustatu du, EEE eta Ihobe erakunde publikoen bitartez. Ekimenaren helburua herritarrak kontzientziatzea eta mobilizatzea da, beharrezko trantsizio energetiko eta klimatikoaren aurrean. 58 udalek, mankomunitate batek eta hiru administrazio-batzarrek hartutako konpromisoari esker, 200 jarduera baino gehiago antolatu dira.	·Helburua beteta.
·Klimari eta energiari buruzko hitzaldia, Europaren etorkizunari buruzko hitzaldiaren antzeko arreta gazteengan jarritz.	·Ekimen hori ez da landu 2022an.	·Atzeratutako helburua.

## 8. Eraldaketa Ekonomiko-digitalaren Lantaldearen balantzea

### 8.1. Aurreikusitako jarduketak

2022ko lan-helburua	Jarraipena	Betetzea
<p>·Gaitasun digitalak sustatzea mundu ekonomikoan. Profesionalak eta langabeak prestatzea "Pentsamendu Konputazionalaren Garapenean" eta eraldaketa digitalean.</p>	<p>·Helduentzako 2 ibilbide ziertatu dira Lanbiden, pentsamendu konputazionalari, webguneari eta mikroprozesadoreei buruz.</p> <p>·Pentsamendu konputazionalari eta adimen artifizialari buruzko ikastaro bat diseinatu da 5 ikastolatan (haur-eremuan), Euroeskualde-2021aren esparruan.</p> <p>·ADINBERRIK eskatuta, adinekoen gaikuntzari buruzko proiektu bat diseinatzen ari da.</p>	<p>·Helburua abian.</p>
<p>·Langileen eta tamaina txikiko enpresen gaikuntza sustatzea, enpresa-sare atzeratuenean eraldaketa paraleloa lortzeko.</p>	<p>·Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren eta Errenteriako Udalaren, Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundien, EHUren, SPRIren eta Osakidetzaren arteko lankidetzak, beren erakundee-tan Ikanos metodologia ezartzeko.</p> <p>·Ikanos metodologiaren sentsibilizazio- eta hedapen-tailerrak abiaraztea Eusko Jaurlaritzan.</p> <p>·Konpetentzia Digital Profesionalen Programa berria, enpresetan hobetzen laguntzeko.</p> <p>·Gaitasun Digitalen Europako Esparruaren 2.2 bertsioa argitaratzea euskaraz.</p>	<p>·Helburua abian.</p>
<p>·Enpresa ahulenei ezagutza eta adibideak prestatzea eta ematea, aurrerapenari eta eraldaketa ekonomiko-digitalari dagokienez, modu etiko eta arduratsuan.</p>	<p>·BDIH KONEXIO programaren 17 kasu arrakastatsuren material ausiobisuala identifikatu eta sortu da.</p>	<p>·Helburua abian.</p>
<p>·Palanka teknologikoetan oinarritutako ideia berritzaileak garatzea eta eragin sozial positiboko ekintzaitzak edo barne-ekintzaitzak sortzea.</p>	<p>·RECICLANET ekimenaren dimentsioa zabaltzea, eta bilketa-mankomunitateetan ekimenaren berri ematea eta lankidetzak sustatzea.</p> <p>·NETCIRCULAR+ eredua 5 enpresatan aplikatzea, ekoizpen- eta kontsumo-sistema eraginkorragoak eta lehiakorragoak, karbono gutxiak eta sozialki arduratsuak hedatzen laguntzeko.</p>	<p>·Helburua abian.</p>



<p>·Arrakala digitalak murrizteko ekimen zehatzak identifikatzea.</p>	<p>·Euskal administrazioak eskaintzen dituen zerbitzu digitalen berrikuntzari dagokionez abian dauden ekimenak biltzea, dauden arrakalak identifikatzea eta behar den prestakuntzaren eskaintza antolatzea.</p> <p>·Herritarrak ahalduntzea, berrikuntza digitalaren erabilera etikoa eta kritikoa egin ahal izan dezaten; eta toki-erakundeetatik arrakala digitalak lantzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-BCSC: herritarrentzako atal espezifikoa webgunean.</li> <li>-GAIA: Tolosako merkatua digitalizatzea.</li> </ul>	<p>·2023ra atzeratutako helburua.</p> <p>·Helburua abian.</p>
<p>·Hainbat teknologia digital batera ezartzearekin eta erabiltzearekin lotutako proiektuak sustatzea, gizartean hobekuntzak eragingo dituztenak eta enpresa eta sektore berrientzat eragin biderkatzailea izango dutenak.</p>	<p>·Gipuzkoako Foru Aldundiaren Adinberri ekimenaren esparruan, teknologia disruptibo digitalak (IoT, ahots-teknologiak, errealitate birtuala, robotika soziala, adimen artifiziala, etab.) aplikatu dira Silver Economy ekimenaren esparruan.</p>	<p>·Helburua abian.</p>
<p>·Teknologia sozialaren erabilera eta onurak erakustea. 2030 Agendako balioak "Euskal Encounter"en sartzea.</p>	<p>·Honako jarduera hauek sartu dira Euskal Encounter 2022an: Ekitaldiaren karbono-aztarnaren kalkulua; Birziklatze-neurriak; Sexu-jazarpenaren Prebentziorako Gida; 2030 Agendaren Korner Sentsibilizazioa; Enpresa Digitalean prestatze-hitzaldia.</p>	<p>·Helburua beteta.</p>
<p>·Gaitasunak aktibatzea lehentasunezko eremu teknologikoei lotutako eskaintza-aktiboak identifikatzeko, aliantzak sortzeko.</p>	<p>·BRTAko 10 proiektuen ekintza posibleak identifikatzen ari dira.</p>	<p>·Helburua abian.</p>
<p>·Interneten erabilera arduratsua sustatzeko kanpaina bultzatzea.</p>	<p>·Honako hauek garatzen ari dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-GAIA-BCSC ekimena: ikus-entzunezko pilulak ETB3n.</li> <li>-BCSC: "En Ciber, Ciberseguolas" kanpaina.</li> </ul>	<p>·Helburua abian.</p>
<p>·Enpresa txiki eta ertainetan proiektu pilotu bat egitea, ekosistema digital batean oinarritutako prozesu baten bidez.</p>	<p>·Ekimen hori ez da landu 2022an.</p>	<p>·2023ra atzeratutako helburua.</p>

## 9. Guneak Ekimenaren balantzea

Euskadi 2030 Gunea 2019 eta 2020 artean garatutako lankidetzaren publikoaren, pribatuaren eta gizarte zibilaren arteko esperientzia pilotu bat izan zen. Hainbat esparrutako (publikoak, pribatuak, hirugarren sektorekoak eta unibertsitatekoak) 17 euskal erakundek parte hartu zuten. Ekimen horren balorazio onaren ondorioz, 2030 Agenda Euskadi Foroaren egituraren barruan, ekimen horren erreplika bat jaso zen, parte-hartze publikora, pribatura eta gizarte zibilera irekitzeko gune gisa.

Horrela, hasiera batean hiru *Guneak* sortzea aurreikusi zen, Eraldaketa Sozialeko, Eraldaketa Energetiko-klimatikoko eta Eraldaketa Ekonomiko-digitaletako lantaldeei bideratuta. Hiru *Guneak* eratu ziren, baina abian jarri ondoren, kideak bat etorri ziren esatean erabilgarriagoa zela talde bakar batean biltzea, eraginkortasuna eta sinergia indartzeko.

Birplanteamendu horren ondorioz, 2022ko Kudeaketa Planean aurreikusitako lan-programa birdefinitu zen, eta 2022rako lan-helburuak birformulatu ziren. Guneak Ekimenaren balantzea bigarren jarduketa-programa horren gainean egin da.

### 9.1. Aurreikusitako jarduketak

2022ko lan-helburua	Jarraipena	Betetzea
·Partaidetza sozialeko eta eragile anitzeko lankidetzako ekimen bat bultzatzea.	·Guneak eratu da eta lankidetzaren esperientzia plurala garatzen ari da.	·Helburua beteta.
·Aliantza pluralaren oinarriak ezartzea, datozen urteetan proiektu partekatutakoak garatzeko, eta 2022an helburu zehatz eta neurgarri bati heltzea.	·Guneak Ekimena eta haren lanplangintza bateratzeak helburu horri erantzuten dio.	·Helburua abian.
·Hiru tresna prestatzea: GJHak enpresetan eta erakundeetan ezartzeko gida, autodiagnostikorako tresna eta aintzatespen-prozesuak.	·Hiru tresna horiek sortzeko prozesua garapen-fase aurreratuan dago jada.	·Helburua abian.
·2030 Agendaren inguruan gizarte-aktibazioko proposamen bat prestatzea eta bultzatzea, hainbat udalerritan eta eremutan herritarren komunitateak eratuz: 2030 Guneak.	·Ekimen hau bultzatzeko prozesua hasi da.	·Helburua abian.
·Taldea eragile bat sortzea aurreko bi proiektuak bultzatzeko.	·Honako hauek osatzen dute taldea: Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia, Euskalit, Deusto Cities Lab, UN Etxea, ArantzazuLab, Garapen Jasangarriaren Arabako Aliantza, BBK Fundazioa (BBK Kuna), Kutxa Fundazioa eta Vital Fundazioa.	·Helburua abian.

## 9.2. Jarduketa gehigarriak

-Beste bi lan-ildo jarri dira abian:

- Guneak osatzen dituzten eragileen jarduketak koordinatzea eta lehenestea, nazioarteko proiektioari eta Nazio Batuen Local 2030 Idazkaritzarekin eta etorkizuneko maila anitzeko gobernantzaren HUBarekin duten harremanari dagokienez.

- Guneak osatzen duten eragileen 2030 Agendaren narratiba bateratzea, herritarren artean, oro har, eta gazteen artean, bereziki, haren hedapen handiagoa eta hobea egiteko.

## 10. Ondorioak

·2022. urtea oso konplexua izan da. Bi urteko pandemiari amaiera eman gabe, otsailetik aurrera, Ukrainaren inbasioak eragindako mota guztietako ondorio globalak eta tokikoak gainjarri dira. Kontrako testuinguru horretan, 2030 Agendarekin konprometitutako euskal erakundeek eta gizarte-eragileek Garapen Jasangarrirako Helburuak bultzatzen jarraitu dute.

·2030 Agenda Euskadi Foroa, bat-etortzearen erabaki horren lekuko izateaz gain, 15 hilabetetan eratu da 2030 Agendaren gobernantza kolaboratiboaren organoan. Foroa da koordinazio eta deliberazio partekatua hobetzeko eta garatzeko gunea, bultzada zehatz eta errealari eta Garapen Jasangarrirako Helburuei dagokienez.

·2022. urte hau lehenengo ibilbide-urtea denez eta hain zailtasun larri eta globaleko mundu-egoera batean garatu denez, ziurrenik ez da zentzuzkoa izango lortutako emaitzak baino askoz hobek izatea. Lehen urte honetako balantzea argi eta garbi eraikitzailea izan dela ondorioztatu daiteke eta hala egin behar da. Ebaluazio positibo hori hiru lorpen garrantzitsutan zehaztu daiteke:

-Gobernantza. Gobernantza kolaboratiboko eredu bat zehaztu da, parte-hartze publiko-pribatu eta gizarte zibilaren parte-hartzearekin, eta ondo funtzionatu du.

-Koordinazioa. Informazio- eta lankidetzeta-fluxuak hobetzen lagundu duten koordinazio- eta deliberazio partekatuko espazioak konfiguratu ditu.

-Zehaztapena. Zeharkako lan-irizpide bat bultzatu da, 2030 Agenda *zehatzaren metodologiarekin* eta proiektu eta helburu argietan gauzatzearekin lotzen duena.

·Balorazio positibo hori indartu egiten da Nazio Batuek Local 2030 Koalizioaren Idazkaritzaren egoitza global eta iraunkorra Euskadin kokatzeko hartutako erabakiarekin. Erabaki horren helburua da mundu osoan GJHak azkarrago betetzea, estatuz azpiko gobernuen konpromisoaren bidez.

·Balorazio positibo bat ere ez da nahikoa hobetzeko aukera ukatzeko, eta hori ere ez da nahikoa. 2023 urteak konplexua izaten jarraituko du nazioartean. Toki-mailan, bi hauteskunde-prozesu izango ditu. Foro horren ibilbidearen bigarren urte honetan, Foro osorako zeharkako hiru erronka nabarmendu dira. Hiru erronka horiek hobetzeko eremutzat hartzen dira, eta honako hauek dira:

-2030 Agendaren komunikazio- eta dibulgazio sozialeko ahaleginak areagotu behar dira, baita GJHak era guztietako erakundeetan, entitateetan eta erakundeetan ezartzeko tresnak ere. Bere esanahiaren eta erabilgarritasunaren inguruko ezjakintasunak handia izaten jarraitzen du. Funtsezkoa da gizarte osoaren eta haren adierazpideen informazio- eta inplikazio-maila hobetzea.

-*Zehatzaren metodologiaren* aplikazioa hobetu behar da. Foroko organoek ahalegina egin behar dugu funtzionamendu-metodo horretan sakontzeko. GJHekiko konpromisoa ulertzeko, ekintza, proiektu eta jarduera zehatzetan islatu behar da.

-Local 2030 Koalizioaren egoitza globala Euskadin kokatzea ohorea eta erantzukizuna da. 2030 Agenda Euskadi Foroan modu batera edo bestera parte hartzen dugun erakunde eta entitate guztiok interpelatuta gaude, Local 2030 Idazkaritzarekin lankidetzan, lokalizazioaren eta nazioarteko lankidetzaren arloan ahaleginak areagotzeko. Horretarako, barrurantz gehiago eta hobeto egin behar da (lokalizazio-konpromisoa), eta kanporantz gehiago partekatu eta trukatu (nazioartekotze-konpromisoa).

Bigarren zatia

# 2023ko **Kudeaketa Plana**

## 2023ko ikuspegirako sarrera

Nazio Batuen kezkak 2030 Agendaren bultzada eskasagatik Ekintzaren Hamarkadarako deia ekarri zuen, 2019ko irailean. Sei hilabete geroago deklaratu zen pandemia. Harrezkero, 2020. urte osoa, 2021. urte osoa eta 2022. urtearen hasiera COVID-19aren inpaktu planetarioak baldintzatu zituen. 2022ko otsailaren 24an, Errusiak Ukraina inbaditu zuen. Inbasio hark eragin zuen gerra eta haren ondorioak 2022. urtearen amaieran ere horretan darraite.

Pandemiaren ondorioek eta gerraren ondorio suntsitzaileek mundu osoan eragiten jarraituko dute 2023an. Mende honetako 20., 21. eta 22. urteak ez badira errazak izan Garapen Jasangarrirako Helburuak bultzatzeko, 23. urtea ere ez da erraza izango. Inflazioak, krisi energetikoak, larrialdi klimatikoak eta horrek sektore kalteberenetan dituen inpaktuek gu astintzen gaituzten kontraesan eta tentsio globalen parte izaten jarraituko dute.

2030 Agendaren guneak: pobrezia aurreraketa, genero-berdintasuna, hezkuntza, osasuna, klima-aldaketa, planetaren zaintza, hazkunde ekonomiko inklusiboa, hiri eta komunitate jasangarriak, justizia edo bakea heldu beharreko erronka globalak eta tokikoak dira, eta pandemiaren eta Ukrainako inbasioaren ondorioek premiazkoago egiten dituzte.

Ekintzaren Hamarkadarako deialdia bi egiaztapenetatik sortu zen: Estatuko gobernuek 2030 Agenda garatzea ez da nahikoa, eta GJHein lotutako eskumen gehienak estatuz azpiko gobernuetan daude. Local 2030 Koalizioaren Idazkaritza Bilbon kokatzea Nazio Batuen erabaki bat da, testuinguru horretan bere zentzu osoa hartzen duena.

Panorama global eta tokiko horrek erantzukizuna gehitzen die 2030 Agenda Euskadi Foroaren misioari eta GJHein konprometitutako erakunde guztiei. 2023. urte honetan, mundu mailan aurreikus daitezkeen zailtasunak gain, bi hauteskunde-prozesuren bitarteko tokiko testuingurua gehitu behar dugu: maiatzeko udal- eta foru-hauteskundeak, eta, aurreikuspenen arabera, urteko azken hiruhilekoan egingo diren hauteskunde orokorrak.

Zailtasun globalak eta tokiko egoerak gorabehera, 2023ko ikuspegiak, 2030 Agenda Euskadi Foroaren ikuspegitik, bi hitz ditu: bizkortzea eta areagotzea. 2022ko Memoriaren ondorio positiboek aukera ematen dute asmo handiko ikuspegi hori planteatzeko. Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzera hurbiltzen gaituzten proiektu zehatzen aurrerapenak bizkortzea. 2030 Agendaren garapena areagotzea gobernantzaren, koordinazioaren, komunikazioaren, dibulgazioaren eta ezarpenaren arloan.

Krisi, ziurgabetasun eta eraldaketa sistemikoko garai batean gaude. Gizateriaren erronka handien inguruan adostasunak lortzeko eta horiei eusteko zailtasunak areagotzen dira. 2030 Agenda beharrezkoa eta aukera da, giza garapen jasangarri eta inklusiboa sustatzeko proiektio globaleko eta tokiko aplikazioko tresna. 2023ko perspektibak urtebeteko konpromisoaren perspektiba izan behar du.

## 2023rako indargune nagusiak

2023ko testuinguru globalean eta lokalean lehentasunezko zatik jo daitezkeen gaien diagnostikoa. Hainbat faktore hartu dira kontuan: lehenik eta behin, 2030 Agenda Euskadi Fororen ibilbidea bera eta haren baitan 2022ko Memoria eta 2023ko Kudeaketa Plana egiteko planteatutako hausnarketak; bigarrenik, nazioarteko testuingurua eta egungo erronka nagusiak; eta, hirugarrenik, GJHekiko euskal errealitate soziala, Local 2030 Euskadin kokatzearekin batera.

Azterketa horren ondorioz, gure erantzukizunaren eremuan, 2023an, eta 2030 Agendak ordezkatzeko duena modu globalean eta tokian-tokian ulertzeko ikuspegitik, hiru eskaera nagusiri erantzuteak lehentasuna du:

- GJHei dagokienez, ezagutza eta konpromiso sozial handiagoa behar da.
- Trantsizio energetiko-klimatikorako erantzun praktikoak azkartzeko beharra.
- GJHak nazioartean hobeto betetzea sustatzeko beharra.

Jakina, identifikazio horrek ez du baztertzen, murrizten edo alde batera uzten 2030 Agendari lotutako beste hainbat erronkaren garrantzia. Une honetan, hiru erronka horiek hausnarketarako eta berehalako lanerako mahaian kokatzen ditu, eta elkarrizketak berak ahalbidetuko du diagnostiko hori egokia den egiaztatzea.

# 1. Osoko Bilkuraren 2023ko lan-programa

## 1.1. Legegintzaldiko lehentasunak

-**Estrategia definitzea.** Euskadin Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) ezartzeko gidalerroak eta orientazio estrategikoko ildoak definitzea eta proiektatzea, politiken koherentziaren, genero-berdintasunaren eta giza eskubideen ikuspegitik.

-**Kokapenari eta erronka berriei buruzko hausnarketa partekatua bultzatzea.** Foroaren proiektzio estrategikoan lehentasuna ematea 2030 Agendaren erronka berriei eta GJHen lokalizazioari buruzko hausnarketa partekatuari, Local 2030 Idazkaritzarekin lankidetzan.

-**Jarduera partekatuak sustatzea.** Erakundeen arteko jardunerako eta lankidetzak publikorako, pribaturako eta sozialerako ekimenak eta proposamenak onartzea, Garapen Jasangarrirako Helburuen arloko gauzatzeen anbizioan sakontzeko.

-**Foroaren jarraipena eta balantzea egitea.** Euskadik 2030 Agendari dagokionez hartutako konpromisoen garapenaren etengabeko jarraipena eta urteko balantzea egitea.

## 1.2. 2023rako lan-helburuak

-Martxoan IV. Osoko Bilkura egitea, honako helburu hauekin:

·Gai-zerrendan 13. helburuari (Klimaren aldeko ekintza) berariazko dedikazioa ematea.

·2023 Kudeaketa Plana onartzea.

·Eusko Jaurlaritzak Nazio Batuei aurkeztuko dien 2022ko Borondatezko Jarraipen Txostena ezagutzea eta baloratzea.

·Aurrekontu-prozesuetan GJHen ikuspegia txertatzeko proposamenaren jarraipena egitea.

·Foroaren Presidentziaren IV. Adierazpena aurkeztea.

-Urrian V. Osoko Bilkura egitea, honako helburu hauekin:

·Local 2030 Idazkaritzaren Zuzendaritza gonbidatzea Osoko Bilkura honetan gonbidatu gisa parte har dezan.

·Batzorde Iraunkorrak ekaineko bileran proposatzen duen GJHari berariazko dedikazioa ematea gai-zerrendan.

·2030 Agendaren erronka berriei buruzko eztabaida planteatzea.

·2024ko Kudeaketa Planaren oinarriei eta ildo nagusiei buruzko hausnarketa hastea.

·Foroaren Presidentziaren V. Adierazpena aurkeztea.



### 1.3. Bilera-programa

Bilera-egunak	Behin-behineko gai-zerrenda
<p>·2023ko martxoaren 15eko bilera</p>	<p><b>·I. blokea. Informazioak</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Eusko Jaurlaritzak Nazio Batuei aurkeztutako 2022ko Borondatezko Jarraipen Txostena.</li> <li>2. 13. helburua: Klimaren aldeko ekintza.</li> <li>3. Beste batzuk.</li> </ol> <p><b>·II. blokea. Proposamenak</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>4. 2022ko memoria eta 2023ko Kudeaketa Plana.</li> <li>5. Aurrekontu-prozesuetan GJHen ikuspegia txertatzeko proposamenaren jarraipena egitea.</li> <li>6. Beste batzuk.</li> </ol> <p><b>·III. blokea Adierazpena</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>7. 2030 Agenda Euskadi Foroaren Presidentziaren laugarren adierazpena.</li> <li>8. Galde-eskeak.</li> </ol>
<p>·Urriaren 18ko bilera</p>	<p><b>·I. blokea. Informazioak</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Local 2030 Idazkaritzaren Zuzendaritza aurkeztea, Osoko Bilkuran parte hartzera gonbidatutako ordezkariak gisa.</li> <li>2. Aurreko bileratik aurrerako jardueraren balantzea.</li> <li>3. Tratamendu espezifikoko GJHa.</li> <li>4. Beste batzuk.</li> </ol> <p><b>·II. blokea. Proposamenak</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>5. 2030 Agendaren erronka berriak.</li> <li>6. 2024ko Kudeaketa Planaren oinarriak eta ildo nagusiak.</li> <li>7. Beste batzuk.</li> </ol> <p><b>·III. blokea Adierazpena</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>8. 2030 Agenda Euskadi Foroaren Presidentziaren bosgarren adierazpena.</li> <li>9. Galde-eskeak.</li> </ol>

## 2. Batzorde Iraunkorraren 2023ko lan-programa

### 2.1. Legegintzaldiko lehentasunak

-**Plangintza proposatzea.** Euskal 2030 Agenda koordinatu eta integral baten plangintza aztertzea, bultzatzea, sustatzea eta proposatzea, Eragile Anitzeko Foroaren eremu bakoitzean plan eta jarduketa zehatzak dinamizatuz.

-**Koordinazioa dinamizatzea.** Beharrezko koordinazioa eta harmonizazioa ezartzea Eragile Anitzeko Foroaren Osoko Bilkuraren, haren bost Lantaldeen eta bertan ordezkaturik dauden erakunde eta entitate guztien artean.

-**Ebaluazioa ezartzea.** Eragile Anitzeko Foroaren lanen jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak antolatzea, urteko memoriak eta lan-plan berriak eginez.

-**GJHak azkarrago betetzeko erronka berriei buruzko hausnarketa bultzatzea.** 2030 Agendaren lokalizazioari buruzko etengabeko hausnarketa proposatzeko eta bultzatzeko zeregina bere gain hartzea, GJHak azkarrago betetzeko eta modu partekatuan egiteko, Nazio Batuen Local 2030 Idazkaritzaren egoitzarekin batera.

### 2.2. 2023rako lan-helburuak

-Urtean zehar lau bilera egitea: otsailean, ekainean, irailean eta abenduan.

-Martxoko eta urriko Osoko Bilkuretako gai-zerrenda eta edukiak prestatzea.

-Martxoko Osoko Bilkurak onartu beharko dituen 2022ko Memoriaren proposamena eta 2023ko Kudeaketa Plana prestatzea, bai eta horien betetzea koordinatzea eta dinamizatzea ere.

-Lantaldeen eta Guneak Ekimenaren koordinazioa eta komunikazioa bultzatzea.

-2030 Agendaren erronka berriei eta GJHen lokalizazioari buruzko eztabaida prestatzea.

-Local 2030 Idazkaritzarekin koordinatzeko eta lankidetzan aritzeko mekanismoak ezartzea.

-2023ko Jarduera Memoriaren eta 2024ko Kudeaketa Planaren oinarria prestatzea.

### 2.3. Bilera-programa

Gutxi gorabeherako datak	Behin-behineko gai-zerrenda
·2023ko otsaileko bilera	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Martxoaren 15eko Osoko Bilkuraren gai-zerrenda eta edukiak onartzea.</li> <li>2. 2022ko Memoriaren eta 2023ko Kudeaketa Planaren proposamena behin betiko onartzea.</li> <li>3. Lantaldeen eta Guneak Ekimenaren jarduerari buruzko informazioa.</li> <li>4. 2030 Agendaren erronka berriei eta GJHen lokalizazioari buruzko eztabaida prestatzea.</li> <li>5. Beste batzuk.</li> </ol>
·2023ko ekaineko bilera	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Martxoko Osoko Bilkuraren garapenaren balorazioa.</li> <li>2. Lantaldeen eta Guneak Ekimenaren informazioa eta koordinazioa.</li> <li>3. Urriaren 18ko Osoko Bilkuraren gai-zerrenda eta edukiak onartzea.</li> <li>4. Tratamendu espezifikoko GJHei buruzko erabakia urriko Osoko Bilkurarako.</li> <li>5. 2030 Agendaren erronka berriei eta GJHen lokalizazioari buruzko eztabaida-dokumentua prestatzea.</li> <li>6. Beste batzuk.</li> </ol>
·2023ko iraileko bilera	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Lantaldeen eta Guneak Ekimenaren informazioa eta koordinazioa.</li> <li>2. Urriko Osoko Bilkuraren plana berrikustea eta onartzea.</li> <li>3. Local 2030 Idazkaritzarekin lankidetzan aritzeko guneei buruzko gogoeta eta balorazioa.</li> <li>4. 2030 Agendaren erronka berriei eta GJHen lokalizazioari buruzko eztabaida-dokumentua onartzea.</li> <li>5. Beste batzuk.</li> </ol>
·2023ko abenduko bilera	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Urriko Osoko Bilkuraren garapenaren balorazioa.</li> <li>2. Lantaldeen eta Guneak Ekimenaren informazioa eta koordinazioa.</li> <li>3. 2023 Memoriaren eta 2024ko Kudeaketa Planaren zirriborroa prestatzea.</li> <li>4. Beste batzuk.</li> </ol>

## 3. Gobernantzako Lantaldearen 2023rako ibilbide-orria

### 3.1. Legegintzaldiko lehentasunak

-**Erakundeen arteko kontzertazioa sustatzea.** Jarduketa-irizpideak eta -programak partekatzea, eta erakundearteko koordinazioa eta lankidetzaren optimizatzea, erakunde bakoitzaren autonomia errespetatuz, 2030 Agendaren arloan.

-**Jarraipena eta ebaluazioa egiteko metodologia partekatzea.** 2030 Agendaren arloko politika publikoak lerrotzea, aldizka gabeziak eta hobetzeko esparruak identifikatzea ahalbidetuko duten adierazleak eta jarraipen- eta ebaluazio-metodologiak partekatuz.

-**Nazioarteko jarduna bateratzea.** Euskadi 2030 Agendaren arloan globalki kokatzeko nazioarteko jardura koordinatzea, baterako intereseko sareetan, ekitaldietan eta jardueretan parte hartzea koordinatuz.

-**Gobernantzaren eta lokalizazioaren euskal ereduaren nazioarteko proiektzioa indartzea.** Local 2030 Idazkaritzarekin lankidetzaren ildoak ezartzea, Euskadik 2030 Agendaren gobernantzaren eta lokalizazioaren arloan duen esperientzia nazioartean proiektatzeko eta beste herrialde batzuekin jardunbide egokien trukea sustatzeko.

### 3.2. Lantaldean partekatuko diren 2023rako helburuak eta proiektuak

#### ·Erakundeen arteko kontzertazioa

-Euskal erakundeen artean komunikazio- eta dibulgazio-jardura bateratuak garatzea, Euskadik 2030 Agendarekin duen konpromisoaren isla izango direnak eta herritarrak, erakundeak eta enpresak aktibatzen lagunduko dutenak.

-Lantalde honen metodologian espazio bat sortzea jardunbide egokiak partekatzeko eta haren ondorioak 2030 Agenda Euskadi Foroaren gainerakoekin partekatzeko.

-Elkarrekin bultzatzea aurrekontu publikoak egiteko eta kudeatzeko prozesuetan eta kontratazio publikoko prozesuetan GJHen ikuspegia pixkanaka txertatzea.

-2030 Agendari buruzko dibulgaziozko prestakuntza-prozesuetan laguntzea, bai administrazio publikoetako langileentzat, bai herritar guztientzat.

#### ·Jarraipena eta ebaluazioa

-Garapen Jasangarrirako Helburuen garapenaren eta betetze-mailaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko adierazle-panel bat aurkeztea eta aktibatzea, hiru maila instituzionalen partekatua, 2024tik aurrera urteko jarraipen-txosten boluntarioak egin ahal izan ditzaten herri-ikuspegiarekin.

#### ·Nazioarteko jardura

-2030 Agendari dagokionez, nazioartean euskal presentzia izateko programak eta egutegiak bateratzea eta koordinatzea.

-Maila anitzeko Agendaren eguneraketa aurkeztea.

**·Lokalizazio- eta gobernantza-eredua**

-Local 2030 Idazkaritzari lankidetzaren protokoloaren proposamen bat aurkeztea, 2030 Agendaren gobernantzaren eta lokalizazioaren arloko jarduketara zehatzak nazioartean trukatzeko.

**3.3. Bilera-programa**

<b>Gutxi gorabeherako datak</b>	<b>Behin-behineko gai-zerrenda</b>
·2023ko otsaileko bilera	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Local 2030 Idazkaritza zabaltzeko prozesuari buruzko informazioa.</li> <li>2. 2023ko Kudeaketa Planaren proposamena bateratzea.</li> <li>3. Komunikazio, dibulgazio edo prestakuntzaren arloan lankidetzaren proposamen posibleak.</li> <li>4. GJHen ikuspegia aurrekontuetan eta kontratazio publikoko prozesuetan txertatzeko prozesua.</li> <li>5. Partekatutako adierazleen panelarekin lan egiteko plana.</li> <li>6. Nazioarteko informazio-trukea.</li> <li>7. Jardunbide egokiei buruzko informazioa.</li> <li>8. Beste batzuk.</li> </ol>
·2023ko ekaineko bilera	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Local 2030 Idazkaritza zabaltzeko prozesuari buruzko informazioa eta lankidetzaren protokoloaren proposamena.</li> <li>2. Komunikazio, dibulgazio edo prestakuntzaren arloko lankidetzaren proposamenak.</li> <li>3. GJHen ikuspegia aurrekontuetan eta kontratazio publikoko prozesuetan txertatzeko prozesua.</li> <li>4. Partekatutako adierazleen panelaren kudeaketaren jarraipena.</li> <li>5. Nazioarteko informazio-trukea.</li> <li>6. Beste batzuk.</li> </ol>
·2023ko iraileko bilera	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Local 2030 Idazkaritza zabaltzeko prozesuari buruzko informazioa eta lankidetzaren protokoloaren proposamena.</li> <li>2. Komunikazio, dibulgazio edo prestakuntzaren arloko lankidetzaren proposamenak.</li> <li>3. GJHen ikuspegia aurrekontuetan eta kontratazio publikoko prozesuetan txertatzeko prozesua.</li> <li>4. Partekatutako adierazleen panelaren kudeaketaren jarraipena.</li> <li>5. Nazioarteko informazio-trukea.</li> <li>6. Jardunbide egokiei buruzko informazioa.</li> <li>7. Beste batzuk.</li> </ol>
·2023ko azaroa-abendu artoeko bilera	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. 2023 Memoria eta 2024 Kudeaketa Plana prestatzea.</li> <li>2. Local 2030 Idazkaritzarekin lankidetzaren aritzeko protokoloaren jarraipena.</li> <li>3. Komunikazio, dibulgazio edo prestakuntzaren arloko lankidetzaren jarraipena.</li> <li>4. GJHen ikuspegia aurrekontuetan txertatzeko prozesuaren jarraipena.</li> <li>5. Partekatutako adierazleen panelaren kudeaketaren jarraipena.</li> <li>6. Nazioarteko informazio-trukea.</li> <li>7. Beste batzuk.</li> </ol>

## 4. Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agendako Lantaldearen 2023rako ibilbide-orria

### 4.1. Legegintzaldiko lehentasunak

Lantalde horren lehentasunak gizarte-, ingurumen-, teknologia- eta ekonomia-erronkaren kontzeptu global baten barruan kokatzen dira, eta honako ildo hauetan laburbiltzen dira:

-**Tokiko eremutik enplegua sustatzea.** Enplegua eta enpleguaren aldeko tokiko itunak (merkataritza/turismoa); enplegua tokian-tokian eta hirian egituratzeko jarduerak garatzea.

-**Hiri-eredua berritzea.** Hiri-berroneratze integrala, eraikinen birgaitze sakona, espazio publikoan esku hartzea, ekipamenduak eta neurri sozialak barne.

-**Mugikortasun jasangarria bultzatzea.** Hiriko eta hiriarteko mugikortasun jasangarria.

-**Garapen komunitariorako planak eta jarduerak partekatzea.** Garapen komunitarioko planak eta Hiri Agenda eta 2030 Agenda kokatzeko beste jarduketak batzuk.

Lantalde bakoitzak bere funtzionamendu-eredua ezarri ahal izango du, zereginak talde tematikoen bidez banatuz, taldearen bileren arteko aldietan aurreikusitako helburuen garapenean aurrera egiteko. Zehazki, Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agendako Lantaldeak talde tematiko hauek ezarri ditu:

- Etxebizitza eta ekipamenduak, mugikortasuna eta hiri-plangintza.
- Hiri-berrikuntza, enplegua eta lehiakortasuna.
- Jasangarritasuna.
- Bizi-kalitatea eta gizarte-kohesioa.

### 4.2. Lantaldean partekatuko diren 2023rako helburuak eta proiektuak

• **Hiri-adierazleen jarraipenerako lehen esparrua zehaztea, ixtea eta lantzea,** 2030 Agendako adierazleekin eta Espainiako Hiri Agendatik nahiz Nazio Batuen Urban Monitoring Framework-etik eratorritakoekin bat etorritz.

• **Bultzatu 2050 bigarren txostena egitea,** Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agenda ezartzearekin lotutako aurrerapenei eta erronkei buruzko erreferentziako, eztabaidarako eta sentsibilizaziorako tresna gisa.

• **Euskadiko Hiri Proiektuen Plataforma/Mapa eztabaidatzea, diseinatzea eta egitea,** jardunbide egokiak biltzeko eta proiektu horiek Hiri Agendaren helburuak betetzeko egiten duten ekarpenari balioa emateko gune gisa.

• **Garraio publikoari buruzko hausnarketa,** Lantaldean gogoeta bat planteatzea, garraio publikoan prezioak askatzeak dituen ondorioei eta iraunkortasunari buruz.

### 4.3. Bilera-programa

Gutxi gorabeherako datak	Behin-behineko gai-zerrenda
·2023ko otsaileko bilera	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Local 2030 Idazkaritza zabaltzeko prozesuari buruzko informazioa.</li> <li>2. Hiri Agenda ezartzeko proiektuen egoera.</li> <li>3. Martxoaren 15eko Osoko Bilkuran aurkeztu beharreko informazioa onartzea.</li> <li>4. Beste batzuk.</li> </ol>
·2023ko ekaineko bilera	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Local 2030 Idazkaritza zabaltzeko prozesuari buruzko informazioa.</li> <li>2. Aurreko aktaren erabakien jarraipena.</li> <li>3. 2023ko lan-helburuen programaren jarraipena.</li> <li>4. Beste batzuk.</li> </ol>
·2023ko iraileko bilera	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Local 2030 Idazkaritza zabaltzeko prozesuari buruzko informazioa.</li> <li>2. Aurreko aktaren erabakien jarraipena.</li> <li>3. 2023ko lan-helburuen programaren jarraipena.</li> <li>4. Lehen hiri-txostenaren zirriborroa aurkeztea eta eztabaidatzea.</li> <li>5. Beste batzuk.</li> </ol>
·2023ko azaroa-abendua arteko bilera	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. 2023 Memoria eta 2024 Kudeaketa Plana prestatzea.</li> <li>2. Aurreko aktaren erabakien jarraipena.</li> <li>3. 2023ko lan-helburuen programaren jarraipena.</li> <li>4. Bigarren hiri-txostena onartzea, Euskal Hiria 2023 Kongresuan aurkezteko.</li> <li>5. Beste batzuk.</li> </ol>

## 5. Eraldaketa Sozialaren Lantaldearen 2023rako ibilbide-orria

### 5.1. Legegintzaldiko lehentasunak

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Eragile Anitzeko Foroaren jarduketa-plan orokorrean zein Lantalde honetan ezarritako zazpi lehentasunetako bakoitzean, genero-ikuspegia zeharkako ardatza da. Berdintasunarekiko konpromisoak berariaz agertu behar du ekintza guztietan.

**-Ekitaterako estrategiak indartzea.** Gizarteratzea eta ekitatea sustatzeko eta pobrezia-aren eta bazterkeriaren aurka borrokatzeko estrategiak eta jarduerak indartzen eta bultzatzen laguntzea.

**-Erronka demografikoari emandako erantzunak partekatzen laguntzea.** Erronka demografikoaren aurrean estrategia garatzen laguntzea, baita Familien eta Haurren aldeko Euskal Ituna ere, Garapen Jasangarrirako Helburuekin eta 2030 Agendarekin bat etorritz.

**-Migrazioaren arloko ekimen inklusiboak babestea.** Migrazioarako Euskal Itun Sozialaren edukietan sakontzen lagunduko duten estrategia eta jarduera espezifikoak definitzea.

**-Osasun globalaren arloko konpromisoak eta proiektuak babestea.** Hegoaldeko herrialdeekin osasun-arloan lankidetzan aritzeko eta osasun-langileak prestatzeko ekimenak bultzatzea, bai eta txertaketa globalaren prozesuan inplikatzeko ekimenak ere.

**-Bizikidetzaren integratua eta integratzailea bultzatzea.** Bizikidetzaren babestea eta sustatzea, giza duintasunaren, bakearen, berdintasunaren aldeko hezkuntza eta balioak, eta aniztasun politiko, kultural eta erlijiosoarekiko errespetua sustatuz.

**-Gazteriaren arloko lankidetzaren sustatzea.** 2030 Agendaren arloko estrategia eta jarduketa espezifikoak definitzea, gazteak xede dituztenak, eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin lankidetzan aritzea, arreta berezia jarriz gazteen emantzipazio-prozesuak bultzatzeko helburuan.

**-Hezkuntza inklusiboaren arloko konpromisoak eta proiektuak babestea.** Hezkuntza inklusiboan sakonduko duten ekimenak eta proiektuak bultzatzea, gizarte kohesionatua, goa, solidarioagoa eta jasangarriagoa sustatzeko.

**-Dibulgazio soziala sustatzea.** 2030 Agendaren arloko informazioko, pedagogiako eta dibulgazio sozialeko estrategiak eta jarduerak partekatzea.

**-17. GJHa sustatzea:** Garapen Jasangarrirako Aliantzak. Euskadi eta GJHak nazioarteko agendan.

**-17+1 GJHa sustatzea: Kultura eta Hizkuntza Aniztasuna.** Kulturari eta hizkuntza-aniztasunari buruzko 17+1 GJHa bultzatzea.

### 5.2. Lantaldean partekatuko diren 2023rako helburuak eta proiektuak

#### •Ekitatea

-Ekitatea proiektu adierazgarriaren zazpi programetako bakoitzaren ebaluazioa eta ondorioak partekatzea, pandemiaren osteko testuinguruan: Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren Programa eta haren osagarria, Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriaren Programa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen Programa (GLL), Azken Sarea Indartzen Programa, Lehen Urratsa Programa, Aukerak Suspertzen Programa, Euskarri Programa, Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa eta Gizarteratzeko IV. Planean jasotako jardura-programa; bai eta 2023-2030 aldirako Haur Bermerako Euskal Estrategiaren garapena ere.



-Emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremu zehatzean, Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizarte baten aldeko Itun sozialaren eta herritarraren garapena babestea eta partekatzea.

-12. GJHari dagokionez (Desberdintasunak murriztea), Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren 19. artikuluan aitortutako bizimodu independentearen eredia bultzatzea.

•**Erronka demografikoa**

-Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiaren garapena partekatzea. Familiei Laguntzeko V. Plan Institutuzionalaren (2023-2026) bultzada kontrastatzea. Familia-inpaktuaren protokolo bat egitea eta kontrastatzea, araudi guztietan ikuspegi hori kontuan har dadin.

•**Migrazioa**

-Migraziorako Euskal Itun Sozialaren ebaluazio bat partekatzea Kulturartekotasunaren VI. Planaren barruan, eta datozen urteetan proiektatzeko lehentasunak bateratzea.

•**Osasun globala**

-Txertaketa globalaren eta solidarioaren arloan informazioa partekatzea eta ahaleginak koordinatzea, bai eta osasun globalaren eta solidarioaren arloko ekimenak babestea eta sustatzea ere.

•**Bizikidetzak**

-Talde eragileak "Gazteria, Bizikidetzak eta Etorkizunari" buruzko azken proposamena aurkeztea eta kontrastatzea.

-Euskal kasuaren ikaskuntzei buruzko 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programaren 7. proiektu adierazgarria partekatzea.

-ADOS Batzordearekiko koordinazioari eustea, kulturarteko bizikidetzak sustatzeko, Eraldaketa Sozialaren Lantalde honen talde tematikotzat hartuta.

•**Gazteak**

-Gazteen Emantzipazioa laguntzeko estrategia espezifikoaren edukiak eta abiaraztea partekatzea.

-2030 Agendari buruzko Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren erakusketa ibiltariaren garapena babestea eta partekatzea.

•**Hezkuntza**

-Lantaldean partekatzea *Hezkuntzaren Auzolana* proiektu adierazgarriaren jarraipena.

-Lantaldean Hezkuntza Legearen jarraipena partekatzea.

•**Dibulgazioa**

-2030 Agendari buruzko komunikazio- eta dibulgazio-kanpainen garapena babestea eta sustatzea.

-2030 Agendaren arloko dibulgaziozko prestakuntza-programa bat babestea eta sustatzea.

-2030 Agendari buruzko material didaktikoa aurkeztea eta partekatzea.

•**17. GJH: Garapen Jasangarrirako Aliantzak. 2030 Agendarekin lerrokatutako Euskadi babestea nazioarteko agendan.**

-17. GJHaren lorpena sustatzea, Garapen Jasangarrirako Politiken Koherentziaren ikuspegi hartzeari dagokionez.

-Lantaldean hausnarketa partekatua sustatzea, bai Garapenerako Lankidetzaren ereduari dagokionez, bai Garapenerako Laguntza Ofizialera bideratutako zuzkidurari dagokionez.

•**Giza Eskubideak**

-Eusko Jaurlaritzak nazioz gairikoen enpresen eta giza eskubideen inguruan egiten ari den lana partekatzea.

•**17+1 GJH: Kultura eta Hizkuntza-aniztasuna**

-Foroaren barruan akordio bat bultzatzea, Kultura eta Hizkuntza-aniztasunari buruzko 17+1 GJHa 2030 Agendan txertatzeko.

### 5.3. Bilera-programa

Gutxi gorabeherako datak	Behin-behineko gai-zerrenda
·2023ko otsaileko bilera	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Local 2030 Idazkaritza zabaltzeko prozesuari buruzko informazioa.</li> <li>2. 2023ko lan-helburu hauen jarraipena: <ul style="list-style-type: none"> <li>-Gazteen emantzipazioa laguntzeko 2030 Euskal Estrategia.</li> <li>-Kultura eta Hizkuntza-aniztasunari buruzko 17+1 GJHa txertatzeko akordio-proposamenari buruzko eztabaida.</li> <li>-ADOS Batzordearen 2023-2026ko Jarduera Programaren aurkezpena.</li> <li>-Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren 2030 Agendari buruzko erakusketa ibiltariaren egutegia aurkeztea.</li> <li>-Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren garapen jasangarrirako politiken koherentzia-batzordearen informazioa.</li> <li>-Lankidetzeta eta elkartasunerako Euskal Legea onartzeko prozesuari buruzko informazioa.</li> </ul> </li> <li>3. Beste batzuk.</li> </ol>
·2023ko ekaineko bilera	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Local 2030 Idazkaritza zabaltzeko prozesuari buruzko informazioa eta egon daitezkeen lankidetzeta-ildoan azterketa.</li> <li>2. 2023ko lan-helburu hauen jarraipena: <ul style="list-style-type: none"> <li>-Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legea eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren Programa.</li> <li>-2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programaren 7. proiektu adierazgarria, euskal kasuaren ikaskuntzei buruzkoa.</li> <li>-Komunikazio-, dibulgazio- eta prestakuntza-ekimenak bateratzea.</li> <li>-2030 Agendari buruzko material didaktikoa aurkeztea.</li> <li>-Kultura eta Hizkuntza-aniztasunari buruzko 17+1 GJHa txertatzeko akordio-proposamenaren jarraipena egitea.</li> <li>-Aurrekontu publikoen aurrerapenari buruzko informazioa 2030 Agendaren ikuspegiarekin eta 17. GJHarekin koherente izanik.</li> <li>-Enpresei eta giza eskubideei buruzko lanari buruzko informazioa.</li> <li>-Familien eta Haurren aldeko Euskal Itunaren jarraipena.</li> <li>-2023-2030 aldirako Haur Bermearen Euskal Estrategiaren ildo estrategikoak aurkeztea.</li> </ul> </li> <li>3. Beste batzuk.</li> </ol>

<p>·2023ko iraileko bilera</p>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Local 2030 Idazkaritza zabaltzeko prozesuari buruzko informazioa eta egon daitezkeen lankidetzaz-ildoan azterketa.</li> <li>2. 2023ko lan-helburu hauen jarraipena: <ul style="list-style-type: none"> <li>-Gizarte-zerbitzuen II. Plan Estrategikoa: aurrerapenak trakzio-proiektuetan.</li> <li>-Hezkuntzaren Auzolana proiektu adierazgarriaren eta Hezkuntza Legearen jarraipena.</li> <li>-Osasun Globaleko proiektuak.</li> <li>-Migrazioarako Euskal Itun Sozialaren ebaluazioa.</li> </ul> </li> <li>3. Beste batzuk.</li> </ol>
<p>·2023ko azaroa-abendu arteko bilera</p>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. 2023 Memoria eta 2024 Kudeaketa Plana prestatzea.</li> <li>2. 2023ko lan-helburu hauen jarraipena: <ul style="list-style-type: none"> <li>-Ekitatea proiektu adierazgarriaren programak: Gizarte Larrialdietarako Laguntzen Programa (GLL), Azken Sarea Indartzen, Lehen Urratsa, Aukerak Suspertzen, Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa eta Euskarri.</li> </ul> </li> <li>3. Beste batzuk.</li> </ol>

## 6. Eraldaketa Energetiko-klimatikoaren Lantaldearen 2023rako ibilbide-orria

### 6.1. Legegintzaldiko lehentasunak

2021-2024 aldirako Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Planaren 2024rako helburuak honako hauek direla kontuan hartuta: berotegi-efektuko gasak % 30 murriztea 2005. urtearekin alderatuta, energiaren % 20 iturri berriztagarrietatik etortzea azken kontsumoarekin alderatuta, eta lurraldearen erresilientzia bermatzea, lantalde honen lehentasunak honako hauek izango dira:

-**Deskarbonizaziorako ekimenak identifikatzea.** Gure ingurune natural eta soziala klima-aldaketara egokitzea eta deskarbonizazioa sustatzera bideratutako proiektuak eta ekimenak identifikatzea.

-**Trantsizio energetiko-klimatikorako estrategiak indartzea.** Alde batetik, eraldaketa inklusiboa sustatzera bideratutako trantsizio energetiko-klimatikoaren estrategiak eta jarduerak indartzen eta bultzatzen laguntzea, arreta berezia jarriz generoaren eta lankidetzaren arloan.

Bestalde, trantsizio ekologikoari ere laguntzea, paduretako, estuarioetako eta kostaldeko uretako ekosistemak eta biodibertsitatea babestuz eta berreskuratuz, ur-masetan eta eremu babestuetan ingurumen-helburuak lortuz, klima-aldaketaren ondorioetara egokituz, eta gure hustubide naturalen ahalmena hobetuz, bereziki karbono urdinarena, lurraldeari erresilientzia handiagoa emanez.

-**Gai horri buruzko informazioa indartzea.** Informazioaren eta dibulgazioaren arloko estrategiak eta jarduerak partekatzea gizarte- eta ekonomia-eremu guztietan, klima-eraldaketa energetikoaren prozesua errazteko eta arintzeko. GJHen arteko erlazio- eta ulermen-ildo transbertsalak ezartzea. Klimaren eta energiaren arloan udalek bultzatzen dituzten jarduera zehatzei buruzko informazioa eta dibulgazioa sustatzea.

### 6.2. Lantaldean partekatuko diren 2023rako helburuak eta proiektuak

#### •Deskarbonizazioa.

Energia-Ekiola ekimenetik:

-2023rako aurreikusitako jarduerari ekitea, hedapen-planaren arabera.

2023rako esperientzia pilotua:

-Berriztagarriak eta artifizializaziorik eza. Zabortegietan, bide-azpiegituretan eta abarretan berriztagarriak txertatzea.

#### •Trantsizio energetiko-klimatiko.

Klima-Ondarea ekimenetik:

-Txingudiko Badiaren inguruko naturaguneen konektibitatea leheneratzeko eta hobetzeko Plan Zuzentzailea bultzatzea, eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Susperitze, Transformazio eta Erresilientzia Plana egitea JEGIPen garapenarekin eta EKZP berritzearekin.

•**Ekonomia zirkularra.**

-Ekonomia zirkularraren erronka garrantzitsuez ohartaraztea eta euskal ekonomia-erentzat eratorritako aukerak aztertzea, Euskadiko 2024ko Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren Planaren helburuak lortzen laguntzeko.

2023rako esperientzia pilotua:

-Lehen MOOC (Massive Online Open Courses) sortzea Euskadiko ekonomia zirkularrean.

•**Gai horri buruzko informazioa.**

-GJHen arteko zeharkako harreman- eta ulermen-ildoak ezartzea, trantsizio ekologikoa, ekonomia zirkularra eta ekonomiaren deskarbonizazioa eragingo duten hiru erakunde-mailen arteko lankidetzaproiektuetatik abiatuta.

2023rako esperientzia pilotua:

-Euskadiko klimaren egoerari buruzko txostena.

### 6.3. Bilera-programa

<b>Gutxi gorabeherako datak</b>	<b>Behin-behineko gai-zerrenda</b>
-2023ko otsaileko bilera	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Local 2030 Idazkaritza zabaltzeko prozesuari buruzko informazioa.</li> <li>2. 2023ko lan-helburu hauen jarraipena:               <ul style="list-style-type: none"> <li>-Deskarbonizazioa.</li> <li>-Trantsizio energetiko-klimatikoa.</li> <li>-Ekonomia zirkularra.</li> <li>-Informazioa.</li> </ul> </li> <li>3. Beste batzuk.</li> </ol>
-2023ko ekaineko bilera	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Local 2030 Idazkaritza zabaltzeko prozesuari buruzko informazioa eta egon daitezkeen lankidetzaildoen azterketa.</li> <li>2. 2023ko lan-helburu hauen jarraipena:               <ul style="list-style-type: none"> <li>-Deskarbonizazioa.</li> <li>-Trantsizio energetiko-klimatikoa.</li> <li>-Ekonomia zirkularra.</li> <li>-Informazioa.</li> </ul> </li> <li>3. Beste batzuk.</li> </ol>

## 2030 Agenda Euskadi Foroa

·2023ko iraileko bilera	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Local 2030 Idazkaritza zabaltzeko prozesuari buruzko informazioa eta egon daitezkeen lankidetzaz-ildoan azterketa.</li><li>2. 2023ko lan-helburu hauen jarraipena:<ul style="list-style-type: none"><li>-Deskarbonizazioa.</li><li>-Trantsizio energetiko-klimatikoa.</li><li>-Ekonomia zirkularra.</li><li>-Informazioa.</li></ul></li><li>3. Beste batzuk.</li></ol>
·2023ko azaroa-abendu artekoko bilera	<ol style="list-style-type: none"><li>1. 2023 Memoria eta 2024 Kudeaketa Plana prestatzea.</li><li>2. 2023ko lan-helburu hauen jarraipena:<ul style="list-style-type: none"><li>-Deskarbonizazioa.</li><li>-Trantsizio energetiko-klimatikoa.</li><li>-Ekonomia zirkularra.</li><li>-Informazioa.</li></ul></li><li>3. Beste batzuk.</li></ol>

## 7. Eraldaketa Ekonomiko-digitalaren Lantaldearen 2023rako ibilbide-orria

### 7.1. Legegintzaldiko lehentasunak

Nazio Batuek ezarritako 2030 Agendan eta Garapen Jasangarrirako Helburuetan (GJH), enpresek funtsezko eginkizuna dute, eta hori, aldi berean, aurrekaririk gabeko erantzukizuna eta aukera da negozio baten helburuak ekitatearen eta jasangarritasunaren helburuekin lerrokatzeko. Agenda horrek, gainera, aukera ematen du garapen jasangarriaren arloan munduko erronka handienei aurre egitea ahalbidetuko duten konponbideak eta teknologiak garatzeko eta ezartzeko. Izan ere, teknologia digitalek eta palanka gisa ezartzen diren politika publikoko plan eta ibilbide-orriek laguntzen dute GJHez ezartzen dituzten helburuetarantz aurrera egiten. Zehazki, Lantalde horren lehentasunak honako hauek izango dira:

**-Trantsizio ekonomiko-digitalaren erronkari emandako erantzunak identifikatzea.** Trantsizio ekonomiko-digitalaren erronkei irtenbideak emango dizkieten proiektu eta ekimen teknologikoak identifikatzea.

**-Digitalizazioan ekitatea sustatzea.** Digitalizazio inklusiboa sustatzera bideratutako estrategiak eta jarduerak indartzen eta bultzatzen laguntzea.

**-Enpresa-eremuan informazioa partekatzea.** 2030 Agendaren arloko enpresa-eremuko informazioaren eta dibulgazioaren arloko estrategiak eta jarduketak partekatzea.

### 7.2. Lantaldean partekatuko diren 2023rako helburuak eta proiektuak

• **Trantsizio ekonomiko-digitala: gaitasun digitalak bultzatzea.**

-Ekimen pilotua Araban eta Bizkaian: langabeei programazioan eta pentsamendu konputazionalen prestakuntza emateko bi ikastaro.

-Ikanos ekimena. Langileen eta tamaina txikiko enpresen gaikuntza sustatzea: administrazio-arloko PDP argitaratzea eta zabaltzea; sentsibilizazio- eta hedapen-tailerrak egitea (4); Konpetentzia Digital Profesionalen Programaren deialdi hedatu berria egitea, eta Konpetentzia Digitalen Europako Ziurtagiriaren oinarriak ezartzeko eta Euskadirekin lerrokatzeko azterlanean parte hartzea.

-Ikus-entzunezko materiala identifikatzea eta sortzea enpresa-eremuan digitalizatzen laguntzeko programen kasu arrakastatsuak zabaltzeko: BDIH Konexio (10), Industria digitala (2) eta Banda Zabal ultraazkarra enpresentzat (2).

-Reciclanet ekimena: foru-aldundietara, udaletara eta enpresa handietara zabaltzea.

-Netcircular ereduko proiektua: enpresetan hedatzen jarraitzea, ekoizpen- eta kontsumo-sistema eraginkorragoak eta lehiakorragoak, karbono gutxikoak eta sozialki arduratsuak hedatzen laguntzeko.

• **Ekitatea digitalizazioan: teknologiak egokitzea desberdintasun digitala murrizteko.**

-Arrakala digitalak murrizteko ekimen zehatzak identifikatzea (generokoak, linguistikoak, lurraldekoak, adinekoak): Eraldaketa Ekonomiko Digitaleko Lantaldearen helburuak sartzeko, KZgune zentroen sareko prestakuntza-programak gauzatzeko. Prestakuntza-programa horiek MRR-Next-EU funtsaren 1. inbertsioaren esparruan garatuko dira, herritarren gaikuntza digitalari buruzko 19. osagaiaren Zeharkako Konpetentzia Digitalak izenekoan.

-3 bulego abian jartzea (2 Bizkaian eta 1 Araban), 20.000 biztanletik beherako udal-erriek eta eskualdeek eraldaketa digitala bizkortu dezaten. Gipuzkoako landa-ingurunerako ETEen Bulego Azeleratzailea abian jartzea (Gipuzkoako HAPA).

### •Enpresa-eremuko informazioa.

-Lankidetzeta-hitzarmena Deustuko Unibertsitateko FABLABekin, plastikozko ezkatat prentsatzeko eta plaka solidoak sortzeko makina bat diseinatzeko, plastikoa birziklatzearen garrantziaz kontzientziatzeko kanpaina batekin batera.

-BRTA proiektuak: Bildutako dibulgazio-materialekin Lantaldearen komunikazio-helburuak lortzen lagunduko da, bereziki ETEei transformazio digitalak ematen dizkien aukerak ikusarazteko.

-Batez besteko material berriak sortzea gizartea sensibilizatzeko eta prestatzeko teknologia gaitzaileen erabilera osasungarriaren arrisku eta aukeren inguruan: Zibersegurtasuna, Adimen Artifiziala, Adimen Esperientziala, Datuak eta horiek gure ingurune pertsonal eta profesionaletan kudeatzea.



### 7.3. Bilera-programa

Gutxi gorabeherako datak	Behin-behineko gai-zerrenda
·2023ko otsaileko bilera	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Local 2030 Idazkaritza zabaltzeko prozesuari buruzko informazioa.</li> <li>2. 2023ko lan-helburu hauen jarraipena:               <ul style="list-style-type: none"> <li>-Trantsizio ekonomiko-digitala: gaitasun digitalak bultzatzea.</li> <li>-Ekitatea digitalizazioan.</li> <li>-Enpresa-eremuko informazioa.</li> </ul> </li> <li>3. Beste batzuk.</li> </ol>
·2023ko ekaineko bilera	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Local 2030 Idazkaritza zabaltzeko prozesuari buruzko informazioa eta egon daitezkeen lankidetzaz-ildoan azterketa.</li> <li>2. 2023ko lan-helburu hauen jarraipena:               <ul style="list-style-type: none"> <li>-Trantsizio ekonomiko-digitala: gaitasun digitalak bultzatzea.</li> <li>-Ekitatea digitalizazioan.</li> <li>-Enpresa-eremuko informazioa.</li> </ul> </li> <li>3. Beste batzuk.</li> </ol>
·2023ko iraileko bilera	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Local 2030 Idazkaritza zabaltzeko prozesuari buruzko informazioa eta egon daitezkeen lankidetzaz-ildoan azterketa.</li> <li>2. 2023ko lan-helburu hauen jarraipena:               <ul style="list-style-type: none"> <li>-Trantsizio ekonomiko-digitala: gaitasun digitalak bultzatzea.</li> <li>-Ekitatea digitalizazioan.</li> <li>-Enpresa-eremuko informazioa.</li> </ul> </li> <li>3. Beste batzuk.</li> </ol>
·2023ko azaroa-abendu arteko bilera	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. 2023 Memoria eta 2024 Kudeaketa Plana prestatzea.</li> <li>2. 2023ko lan-helburu hauen jarraipena:               <ul style="list-style-type: none"> <li>-Trantsizio ekonomiko-digitala: gaitasun digitalak bultzatzea.</li> <li>-Ekitatea digitalizazioan.</li> <li>-Enpresa-eremuko informazioa.</li> </ul> </li> <li>3. Beste batzuk.</li> </ol>

## 8. Guneak Ekimenaren 2023ko ibilbide-orria

Euskadi 2030 Gunea 2019 eta 2020 artean garatutako lankidetzaren publikoaren, pribatuaren eta gizarte zibilaren arteko esperientzia pilotu bat izan zen. Hainbat esparrutako (publikoak, pribatuak, hirugarren sektorekoak eta unibertsitatekoak) 17 euskal erakundek parte hartu zuten. Lankidetzaren espazio hori helburu zehatz batekin eratu zen: edozein euskal erakunderi zuzendutako "2030 Agenda ezartzeko moduari buruzko eta Garapen Jasangarriko Helburuak lortzen laguntzeko Gida praktikoa bat egitea Euskal Erakundeentzat".

Guneak Ekimenak, 2030 Agenda Euskadi Foroaren barruan, eragile anitzeko partaidetza eta lankidetzaren esperientzia hartuko du oinarritzat, eta haren espirituari jarraipena ematen saiatuko da. 2030 Agendaren Lehenetsunaren Euskal Programaren "II. Lehenetsuna: Koordinazioa eta Lankidetzaren Gobernantza" atalean sustatzea aurreikusten da.

### 8.1. Legegintzaldiko lehenetsunak

-**Eragile anitzeko parte-hartzea eta lankidetzaren**. 2030 Agenda Euskadi Foroaren dinamizakari hartzeko, proiektu zehatzen eta partekatuen garapenerako inguruko parte-hartze eta lankidetzaren publikorako, pribaturako eta sozialerako bideak zabaltzeko.

-**GJHen ikuspegia erakundeetan zabaltzea**. Jasangarritasunaren eta elkartasunaren ikuspegia ezartzen laguntzeko, 2030 Agendaren eta GJHen bidez, era guztietako erakunde, entitate eta instituzioen barne-prozesuetan.

-**Herritarrak aktibatzea**. Udaleremutik herritarren inplikazio-erperientziak bultzatzea.

### 8.2. 2023rako lan-helburuak

•**Erakundeentzako tresna-kutxa**. 2023an zehar hiru tresna aurkeztea: enpresetan eta erakundeetan GJHak ezartzeko gida, autodiagnostikorako tresna eta abian jarriko diren esperientzia pilotuetan oinarritutako aintzatespen-prozesuak.

•**Enpresa-konpromisoaren hedapena**. Garapen bidean dauden herrialdeetan egoitza duten euskal enpresek partekatu ahal izango den hausnarketa bat planteatzea Guneak eremuaren barruan, ingurumen- eta gizarte-konpromisoaren ondorioak zabaltzeko.

•**Herritarrak aktibatzea**. 2030 Agendaren inguruan aktibazio sozialerako proposamen bat aurkeztea eta sustatzea, hainbat udalerritan herritarren komunitateak eratuz. Guneak osatzen duten eragileen 2030 Agendako narratibaren konbergentzia sustatzea, herritarren artean, oro har, eta gazteen artean, bereziki, hura gehiago eta hobeto zabaltzeko.

•**Nazioarteko proiektzioa**. Guneak osatzen duten eragileen jarduketak koordinatzea eta lehenetsia, nazioarteko proiektzioari eta Nazio Batuen Local 2030 Idazkaritzarekin eta etorkizuneko Maila Anitzeko Gobernantzako HUBarekin duten harremanari dagokienez.

### 8.3. Bilera-programa

Gutxi gorabeherako datak	Behin-behineko gai-zerrenda
·2023ko otsaileko bilera	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Local 2030 Idazkaritza zabaltzeko prozesuari buruzko informazioa.</li> <li>2. 2023ko lan-helburu hauen jarraipena: <ul style="list-style-type: none"> <li>-Erakundeentzako tresna-kutxa.</li> <li>-Enpresa-konpromisoaren hedapena.</li> <li>-Herritarrak aktibatzea.</li> <li>-Nazioarteko proiektzioa.</li> </ul> </li> <li>3. Beste batzuk.</li> </ol>
·2023ko ekaineko bilera	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Local 2030 Idazkaritza zabaltzeko prozesuari buruzko informazioa eta egon daitezkeen lankidetzaz-ildoan azterketa.</li> <li>2. 2023ko lan-helburu hauen jarraipena: <ul style="list-style-type: none"> <li>-Erakundeentzako tresna-kutxa.</li> <li>-Enpresa-konpromisoaren hedapena.</li> <li>-Herritarrak aktibatzea.</li> <li>-Nazioarteko proiektzioa.</li> </ul> </li> <li>3. Beste batzuk.</li> </ol>
·2023ko iraileko bilera	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Local 2030 Idazkaritza zabaltzeko prozesuari buruzko informazioa eta egon daitezkeen lankidetzaz-ildoan azterketa.</li> <li>2. 2023ko lan-helburu hauen jarraipena: <ul style="list-style-type: none"> <li>-Erakundeentzako tresna-kutxa.</li> <li>-Enpresa-konpromisoaren hedapena.</li> <li>-Herritarrak aktibatzea.</li> <li>-Nazioarteko proiektzioa.</li> </ul> </li> <li>3. Beste batzuk.</li> </ol>
·2023ko azaroa-abendu arteko bilera	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. 2023 Memoria eta 2024 Kudeaketa Plana prestatzea.</li> <li>2. 2023ko lan-helburu hauen jarraipena: <ul style="list-style-type: none"> <li>-Erakundeentzako tresna-kutxa.</li> <li>-Enpresa-konpromisoaren hedapena.</li> <li>-Herritarrak aktibatzea.</li> <li>-Nazioarteko proiektzioa.</li> </ul> </li> <li>3. Beste batzuk.</li> </ol>





